

# Misioa

Opus Dei Eliza katolikoaren Prelatutza pertsonal bat da. Madrilen eraiki zuen San Josemaria Escrivak 1928ko urriaren 2an. Gaur egun, bost kontinenteetako 80.000 pertsona baino gehiagok osatzen dute Opus Dei. Egoitza –prelatuaren eliza eta guzti– Erroman dago.

2004 Ots 9

Vatikanoko II. Kontzilioak gogorarazi zuen bataiatu guztiak deituak daudela Jesukristori jarraitzera,

Ebanjelioa bizitzera eta erakustera.  
Opus Deiren helburua Elizaren misio  
ebanjelizatzaile horretan laguntzea  
da, edozein egoerako kristau  
fededunengan sinesmenaren eta  
bizitzaren arteko adostasuna  
sustatzuz, egoera arruntetan eta  
bereziki lana santutzearen bitartez.

Helburu horretara iristeko,  
prelatutzak bere fededunei, eta beste  
jende askori ere, gogo heziketa eta  
laguntza pastoral eskaintzen die.

Laguntza pastoral horren bitartez  
Ebanjelioaren ikaskizunak betetzera  
bultzazten da, kristau bertuteak  
erabiliz eta lana santutzuz. Lana  
santutzeak, prelatutzako  
fededunentzat, Jesukristoren  
espirituaren arabera lan egitea esan  
nahi du: norberaren eginkizuna  
gutziz ongi betetzea, Jaungoikoaren  
aintzarako eta besteen serbitzurako,  
eta, horrela, mundua santutzen  
laguntzea, Ebanjelioaren espiritua

munduko jarduera eta errealitate guztietan agerraraziz.

Prelatutzako fededunek beren kabuz egiten dute beren ebanjelizazio lana, jarduten diren gizarte giro desberdinetan. Horren ondorioz, haiek burutzen duten eginkizuna ez da alor bakar batera murrizten, heziketa, gaixoen atentzioa edo ezgaituen laguntzara adibidez. Prelatutzak gogoratu nahi du kristau guztiek, haien jarduera sekularra dena dela, lagundu behar dutela gizartearen arazoak kristauki konpontzen, eta beren sinesmenaren lekuko izan behar dutela etengabe.